koalifikazioen eta lanbide heziketaren euskal institutua
Instituto vasco de cualificaciones y formación profesional

**LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOEN PROGRAMAZIOA**

PROGRAMACIÓN DE LOS CICLOS FORMATIVOS DE FORMACIÓN PROFESIONAL

GIZARTE ETA KULTURA ZERBITZUAK

## HAUR-HEZKUNTZA GOI-MAILAKO TEKNIKARIA

# 2. modulua: **Haurraren Autonomia Pertsonala eta Osasuna**

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOEN PROGRAMAZIOA

PROGRAMACIÓN DE LOS CICLOS FORMATIVOS DE FORMACIÓN PROFESIONAL

GIZARTE ETA KULTURA ZERBITZUAK

# HAUR-HEZKUNTZA GOI-MAILAKO TEKNIKARIA

# 2 modulua: **Haurraren Autonomia Pertsonala eta Osasuna**


EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA
Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN
Viceconsejería de Formación Profesional y Aprendizaje Permanente

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2009

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: http//www.euskadi.net/ejgvbiblioteka

Argitaraldia: 1.a, 2009ko ekaina

Ale-kopurua: 50 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Internet: www.euskadi.net

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea: Agurtzane Mayayo Ontalvilla

Koordinazioa: Víctor Marijuán Marijuán
KOALIFIKAZIOEN ETA LANBIDE HEZIKETAREN EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO DE CUALIFICACIONES Y FORMACIÓN PROFESIONAL
www.kei-ivac.com

Diseinua eta diagramazioa: TRESDETRES

Inprimatzea: mccgraphics

L.G.: VI 397/2009



Iraupena: 198 ordu
UDen kopurua: 6

Esku artean duzun argitalpen hau lanean ari diren lankideek landu dute.

Edozein gairen programazioa oso lan pertsonala da, irakasle bakoitzaren esperientzian oinarritua eta, horrenbestez, subjektiboa. Premisa hori kontuan izanik, programazioa aztertzera eta egoki baderitzozu kontsultarako material gisa erabiltzera gonbidatzen zaitugu. Zure irakasle-lana bideratu dezakeen gida gisa ere baliagarria izan dakizuke.

Izan ditzakeen mugak aintzat hartu badira ere, heziketa-ziklo berrien OCDak abiapuntu izanik sortu eta diseinatu da, eta EAEn curriculum-diseinuaren eta irakaskuntza-programazioaren arloan indarrean dagoen legeria hartu da kontuan (otsailaren 26ko 32/2008 Dekretua).

Erabilgarria izan dakizun espero dugu, eta, aldi berean, egileek lan honetan egindako ahalegina eskertzen dugu.

# AURKIBIDEA


UD-EN SEKUENTZIAZIOA ETA DENBORALIZAZIOA — 04. or.

0 — 0. unitate didaktikoa: Moduluaren aurkezpena — 05. or.

1 — 1. unitate didaktikoa: Osasunaren prebentzioa eta sustapena Haur Hezkuntzan — 08. or.

2 — 2. unitate didaktikoa: 0 eta 6 urte bitarteko haurren hazkuntza eta garapen fisikoaren ereduak aztertzea — 16. or.

3 — 3. unitate didaktikoa: Oinarrizko elikadura-beharrak erantzuteko eta asetzeko hezkuntzako esku-hartzeen plangintza — 21. or.

4 — 4. unitate didaktikoa: Jarduera eta atsedenerako oinarrizko beharrak erantzuteko eta asetzeko hezkuntzako esku-hartzeen plangintza — 28. or.

5 — 5. unitate didaktikoa: Oinarrizko higiene-beharrak erantzuteko eta asetzeko hezkuntzako esku-hartzeen plangintza — 34. or.

6 — 6. unitate didaktikoa: Autonomia pertsonaleko ohiturak hartzeko hezkuntzako esku-hartzeen programazioa — 40. or.

## Unitate didaktikoen sekuentziazioa eta denboralizazioa

| EDUKI MULTZOAK | | | | | | UNITATE DIDAKTIKO SEKUENTZIATUAK | IRAUPENA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| M 1 | M 2 | M 3 | M 4 | M 5 | M 6 | | |
| | | | | | | UD 0: Moduluaren aurkezpena | 1 h. |
| | | | | X | X | UD 1: Osasunaren prebentzioa eta sustapena Haur Hezkuntzan | 36 h. |
| X | | | | | X | UD 2: 0 eta 6 urte bitarteko haurren hazkuntza eta garapen fisikoaren ereduak aztertzea | 26 h. |
| X | | X | X | | X | UD 3: Oinarrizko elikadura-beharrak erantzuteko eta asetzeko hezkuntzako esku-hartzeen plangintza | 40 h. |
| X | | X | X | | X | UD 4: Jarduera eta atsedenerako oinarrizko beharrak erantzuteko eta asetzeko hezkuntzako esku-hartzeen plangintza | 25 h. |
| X | X | X | X | | | UD 5: Oinarrizko higiene-beharrak erantzuteko eta asetzeko hezkuntzako esku-hartzeen plangintza | 30 h. |
| | X | | X | | X | UD 6: Autonomia pertsonaleko ohiturak hartzeko hezkuntzako esku-hartzeen programazioa | 40 h. |
| | | | | | | GUZTIRA | 198 ordu |

*1. multzoa: Oinarrizko beharrei erantzuteko heziketa-jarduerak planifikatzea.*
*2. multzoa: Haurtzaroan autonomia pertsonaleko ohiturak hartzeko esku-hartzeak programatzea.*
*3. multzoa: Oinarrizko beharrei erantzuteko eta ohiturak hartzeko espazioak, denbora eta baliabideak antolatzea.*
*4. multzoa: Oinarrizko beharrei erantzuteko eta autonomia pertsonala sustatzeko esku-hartzea.*
*5. multzoa: Osasunarekin eta segurtasunarekin lotutako zailtasun bereziko egoeretan esku hartzea.*
*6. multzoa: Ohiturak hartzeko eta oinarrizko beharrei erantzuteko programak ebaluatzea.*

| 0. unitate didaktikoa: MODULUAREN AURKEZPENA | | Iraupena: 1 ordu | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Ikaskuntzaren helburuak:<br>1. Moduluaren garapenaren plangintza orokorra ezagutzea, baita taldeko kideak ere.<br>2. Irakasleak prestakuntza-prozesuaren kudeaketan aintzat hartu eta aplikatuko dituen irizpideak ulertzea.<br>3. Ikasleak moduluari dagokionez dituen eskubideak eta betebeharrak identifikatzea.<br>4. Moduluaren unitate didaktikoen arteko eta moduluaren eta beste moduluen arteko lotura nagusiak ulertzea.<br>5. Norberaren jakintzak identifikatzea, moduluan lortu behar diren jakintzei dagokienez. | | | | | | | |
| EDUKIAK | | Multzoak | | | | | |
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
| PROZEDURAZKOAK | • Zikloko moduluen arteko eta zikloaren eta erreferente dituen kualifikazioen arteko loturak aztertzea.<br>• Diziplinaren, metodologiaren, erlazioen eta antzeko beste gaien inguruan planteatzen diren alderdiak, arauak eta elementuak identifikatzea, eta euskarri egokian erregistratzea. | | | | | | |
| KONTZEPTUZKOAK | • Zikloa osatzen duten kualifikazioak eta moduluarekiko lotura.<br>• Moduluaren ekarpena zikloko helburuak lortzeko garaian.<br>• Moduluaren helburuak.<br>• Modulua eta unitate didaktikoak ebaluatzeko irizpideak. | | | | | | |
| JARRERAZKOAK | • Taldeko kide guztiengan, baita irakaslearengan ere, desiragarriak diren portaeren inguruan adostasuna lortzearen garrantzia baloratzea.<br>• Moduluaren garapenean jarraitu beharreko arauak eta irizpideak. | | | | | | |

| JARDUERA | | | | | METODOLOGIA | | BALIABIDEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota | Helburu inplikat. | D. | NORK | | NOLA egingo den | ZERTARAKO egingo den | ZEREKIN egingo den |
| | | | Ir. | Ik. | | | |
| J1 Ikasleen eta irakaslearen aurkezpena. | 1 | 10 m. | X | X | Irakasleak eta ikasleek nork bere burua aurkeztuko dute. Irakasleak iradokiko ditu aurkezpenean interesgarriak izan daitezkeen alderdiak, eta informazio bat edo bestea ematea hautazkoa izango da. | Helburua da hasierako ezagutza lortzea eta gizarte-oztopoak haustea, taldeko kideen arteko komunikazioa erraztearren. Aurreko ikasturtetik sortutako taldea denean, ez da jarduera hau beharrezkoa izango. | Ez da bitarteko berezirik behar. |
| J2 Programazioa osatzen duten elementuen aurkezpena. | 2-4 | 10 m. | X | X | Irakasleak programazioa osatzen duten elementuak, ordutegiak eta abar aurkeztuko ditu, eta, horretarako, eskema bat erabiliko du edo baliabide informatiko bidezko aurkezpena egingo du. | Ikasleek moduluaren gaiaren programazioari, egiturari, loturei, denborari eta iraupenei buruzko ikuspegi orokorra jaso beharko dute, besteak beste. | Arbela.<br>Power Point-eko aurkezpena edo antzekoa.<br>Kronogramak<br>Informazioa duten fotokopiak. |
| J3 Prestakuntza-prozesuaren kudeaketa gidatuko duten irizpideen eta arauen aurkezpena. | 2-3 | 10 m. | X | X | Irakatsi eta ikasteko prozesua kudeatzeko erabiliko diren askotariko irizpideak ezagutaraziko ditu irakasleak. Gardenkiez edo beste elementu batzuez lagundutako ahozko azalpena erabiliko du. Hortaz, azterketak zuzentzeko eta ebaluatzeko irizpideak, barne-erregimeneko araudia, diziplina-erantzukizunak, eta abar azalduko ditu.<br>Zalantza guztiak argitzeko denbora-tartea zabalduko da. | Horrela, ikasleek ikasketa, gizarte eta harremanen arloko esparrua ezagutu eta ulertuko dute, eta arauzko esparru horretara moldatu ahal izango dute haien jarduna. | Ikasgelan edo lantegi-ikasgelan egin daiteke jarduera, eta ez da baliabide berezirik behar. |
| J4-E1 Egin beharreko lanbide-moduluaren gainean ikasleek aurretik dituzten ezagupenen identifikazioa. | 5 | 30 m. | X | X | Jarduera hori elkarrizketaren bidez garatu ahal izango da, baita ikasleek erantzun beharreko irakaslearen galderen bidez, edo, bestela, ondorio horretarako prestatutako galdera irekien bidez edo erantzun anitzeko galderak dituen galdera sorta baten bidez. | Moduluan garatuko diren edukiei dagokienez, ikasleen abiapuntuko jakintza-maila ezagutu nahi da. Abiapuntuko jakintza hori ezagutzeak programazioa berregituratzeko eta taldearen eta gizabanakoen errealitatera egokitzeko aukera emango dio irakasleari. | Galdera sortak. |

| OHARRAK |
| --- |
| • Nahikoa izango da J1 jarduera moduluetakoren batean egitea. Zikloko taldeak adostu beharko du zein modulutan egingo den.<br>• J4 jarduera mantendu ahal izango da, nahiz eta unitate didaktikoetako bakoitzean hasierako ebaluazioa barnean hartzen duen jarduera egin. Bi jarduera horiek bateragarriak eta osagarriak izango dira beti. Aurretiazko jakintzetarako lehen hurbilketa izan daiteke, ondoren, unitate bakoitzean abiapuntuko jakintza horretan gehiago sakontzeko.<br>• Modulu honen unitate didaktikoetan, jarduerak irakatsi eta ikastekoak (J) edo ebaluaziokoak (E) izan daitezke. Zenbaitetan, jarduera bera, irakatsi eta ikastekoa ez ezik, ebaluaziokoa ere izan daiteke. Halakoetan, jarduera hori (Jn-Em) gisa adieraziko da eta hiru motak bilduko ditu. J-en zenbakikuntza (n) eta E-ena (m) elkarrekiko independenteak dira. |

## 1. unitate didaktikoa: OSASUNAREN PREBENTZIOA ETA SUSTAPENA HAUR HEZKUNTZAN

Iraupena: 36 ordu

*IE5: Haurren osasunerako eta segurtasunerako zailtasun edo arrisku bereziko egoeretan esku hartzen du, eta gaixotasunik edo istripurik izanez gero ezarrita dauden prebentziorako eta esku hartzeko protokoloekin lotzen du bere jarduna.*
*IE6: Esku-hartzearen prozesua eta emaitza ebaluatzen du oinarrizko beharrei erantzuteari eta autonomia pertsonaleko ohiturak hartzeari dagokionez, eta erabilitako estrategien eta tresnen hautaketa justifikatzen du.*

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Haurren istripuak prebenitzeko estrategiak deskribatzea.
2. Haurren istripu ohikoenak identifikatzea.
3. Haurren gaixotasun nagusiak identifikatzeko irizpide eta/edo sintoma garrantzitsuenak aditzera ematea, eta jarraitu beharreko jardun-protokoloak deskribatzea.
4. Osasunaren eta segurtasunaren arloan 0 eta 6 urte bitarteko haurrek dituzten oinarrizko ezaugarriak eta beharrak identifikatzea.
5. Haurrentzako arreta-zentroetan osasuna eta ongizatea sustatzeko hartu behar diren osasuneko eta prebentzioko baldintzak eta neurriak deskribatzea.
6. Haur Hezkuntzako teknikariak osasun- eta segurtasun-agente gisa duen eginkizuna baloratzea.
7. Gaixotasun- eta istripu-egoeren aurrean irakaslearen jarrerek duten eginkizuna baloratzea.
8. Osasunerako arriskuen prebentzioan hezitzailearen osasun- eta higiene-egoerak duen garrantzia baloratzea.

| EDUKIAK | | Multzoak | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
| PROZEDURAZKOAK | • Haurrentzako arreta-zentroetan osasuna eta ongizatea sustatzeko hartu behar diren osasuneko eta prebentzioko baldintzak eta neurriak deskribatzea. | | | | | X | |
| | • Haurtzaroan istripuak sorrarazten dituzten arriskuak eta faktoreak aztertzea. | | | | | X | |
| | • Kutsaduren eta infekzioen prebentzioan, eta bizitza-ohitura osasungarrien sustapenean aplikatu beharreko printzipioak landu, baloratu eta hautatzea. | | | | | X | |
| | • Haurren osasunerako edo segurtasunerako arriskuaren adierazleak antzematea. | | | | | | X |
| KONTZEPTUZKOAK | • Osasuna eta gaixotasuna. Haurren osasuna sustatzea eta osasunarekin eta segurtasunarekin lotutako arriskuen prebentzioa. | | | | | X | |
| | • Txertoak. | | | | | X | |
| | • Haurren gaixotasunen aurrean esku hartzeko jarraibideak. Epidemiologia. | | | | | X | |
| | • Gaixotasun kutsakorren aurrean jarduteko protokoloak. | | | | | X | |
| | • Prebentzioa eta segurtasuna oinarrizko beharrei erantzutean. | | | | | X | |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | • Arriskuak eta kontrol-puntu kritikoak.<br>• Desinfekzio-arauak haur-eskolan eta etxean. | | | | | X<br>X | |
| JARRERAZKOAK | • Haurren osasunarekin eta segurtasunarekin lotutako arriskuen prebentzioan irakasleak duen eginkizuna baloratzea.<br>• Osasuneko eta segurtasuneko agente gisa irakasleak duen eginkizuna baloratzea.<br>• Prebentzioan eta osasunaren sustapenean beste profesional batzuekin lankidetzan aritzearen garrantziaz jabetzea.<br>• Gaixotasun- eta istripu-egoeren aurrean irakaslearen jarrerek duten eginkizuna baloratzea. | | | | | X<br>X<br>X<br>X | |

| JARDUERA | | | | | METODOLOGIA | | BALIABIDEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ZER egingo dudan edo duten<br>Jarduera mota | Helburu inplikat. | D. | NORK | | NOLA egingo den | ZERTARAKO egingo den | ZEREKIN egingo den |
| | | | Ir. | Ik. | | | |
| J0 Unitate didaktikoaren aurkezpena.<br>E0 Hasierako ebaluazioa. | | 1 h. | X | | Irakasleak ahozko galderak egingo dizkie ikasle guztiei; ideia-zaparrada botako du unitatearen aurkezpen laburra egin aurretik; eta inkesta bat egingo du unitatea amaitzean. | Ikasleak motibatzea eta ikasleengan interesa piztea bilatzen da, dituzten itxaropenak ezagutzeko eta aurretiazko ezagupenak antzemateko.<br>Ikasleek unitate didaktikoan ikasiko dutena ezagutzea eta eduki berriak gainerako unitate didaktikoetan ikasitakoekin nola erlazionatzen diren ezagutzea bilatzen da, horrela ikasleek moduluaren ikuspegi orokorra bereganatzeko eta ikaskuntza esanguratsuak egiteko. | Power Point-eko aurkezpena.<br>Kanoia.<br>Ordenagailu eramangarria.<br>Aldez aurretik egindako inkesta.<br>Arbela.<br>Klarionak. |
| J1 Osasunari eta gaixotasunari buruzko azalpena. | 4 | 2 h. | X | | Irakasleak osasunari eta gaixotasunari buruzko edukiak azalduko ditu, Power Point-eko aurkezpen bat baliatuz. | Ikasleek osasunari eta gaixotasunari buruzko informazioa jasoko dute eta osasunerako hezkuntzak duen garrantziaz ohartaraziko zaie; haur-hezkuntzako zehar-edukia izango da eta ikasleei bizitza-ohitura osasungarriak bereganatzeko lagungarria izango da halaber. | Power Point-eko aurkezpena.<br>Kanoia.<br>Ordenagailu eramangarria. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| J2 Osasun-zentro batera bisita egitea.<br><br>J2.1-E1 Ikasleen praktika autonomoa: J2 jardueraren emaitzak aztertzea. | 3 | 2 h.<br><br>0,5 h. | X | X<br><br>X | Ikasleek inkesta bat prestatuko dute gelan, osasun-zentroko langileei egiteko. Haurrak pediatraren kontsultara eramaten dituzten gaixotasun nagusiak identifikatzeko irizpide eta/edo sintoma garrantzitsuenei buruzkoa izango da inkesta.<br><br>Ondoren, lortutako emaitzak aztertu eta lan bat egingo dute, banaka; lana irakasleari emango diote, berak zuzentzeko eta baloratzeko. | Haurren gaixotasunei buruzko zuzeneko informazio zehatza lortu nahi da. Halaber, ikasleek haurren gaixotasun garrantzitsuenak bereizteko sintomak ezagutzea eta haur-hezkuntzako teknikariak osasun- eta segurtasun-agente gisa betetzen duen eginkizuna baloratzen ikastea lortu nahi da. | Ikasleek aldez aurretik prestatutako inkesta.<br><br>Ikasgelako berezko baliabideak. |
| J3 Lan-taldeak: haurren gaixotasunei buruzko informazioa bilatzea.<br><br>J3.1-E2 Lan-taldeak: J3 jarduerari buruzko txosten bat lantzea. | 3-4 | 2 h.<br><br>1 h. | | X<br><br>X | Ikasleak taldeka jarriko dira eta txosten bat landu beharko dute, haurren gaixotasun nagusiei buruz lortzen duten informazioarekin.<br><br>Besteak beste, honako alderdi hauek barne hartuko dira: sintomak, tratamendua, kutsadura, eta abar. | Informazioa iturri desberdinetan bilatzen eta informazio egokia aukeratzen eta alderatzen ikasiko dute ikasleek. Halaber, gai jakin baten inguruko alderdirik azpimarragarrienak kontsultatzeko balioko dion idatzizko agiri bat osatzen ikasiko dute. | Testu-liburuak.<br>Internet.<br>Ordenagailu-gela.<br>Pendrive-ak/disketeak.<br>Inprimagailua. |
| J4 Laguntza goiztiarraren esparruko aditu baten hitzaldia.<br><br>J4.1-E3 Ikasleen praktika autonomoa: azaldutako edukiari buruzko fitxak egitea. | 3-6-7 | 1,5 h.<br><br>0,5 h. | | <br><br>X | Laguntza goiztiarraren esparruko aditu bat gonbidatuko da gelara eta haurren asaldurak eta gaixotasunak antzemateko moduari eta esku hartzeko jarraibideei buruz hitz egingo dio talde osoari.<br>Ikasleek, ondoren, fitxa batzuk beteko dituzte (irakasleak aldez aurretik landutako fitxak izango dira). | Haurrengan asaldurak eta gaixotasunak antzemateko moduari eta esku hartzeko jarraibideei buruzko informazioa emango zaie ikasleei. | Ikasgela bera.<br><br>Irakasleek aldez aurretik prestatutako fitxak. |
| J5 Gaixotasun kutsakorren aurrean esku hartzeko protokoloei buruzko azalpena. | 3 | 1,5 h. | X | | Irakasleak esku hartzeko protokoloari buruzko edukiak azalduko ditu, Power Point-eko aurkezpen bat baliatuz. | Ikasleei gaixotasun kutsakorren aurrean esku hartzeko protokoloei buruzko informazioa emango zaie. | Power Point-eko aurkezpena.<br>Kanoia.<br>Ordenagailu eramangarria. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| J5.1-E4 Ikasleen praktika autonomoa: Azterketa kritikoa J5 jardueraren inguruan. | | 0,5 h. | | X | Ikasleek, ondoren, irakasleak azaldutako edukiaren azterketa kritikoa egingo dute. | | |
| J6 Hainbat agenteren arteko elkarlana lortzeko irizpideei buruzko azalpena.<br><br>J6.1 Ikasleen praktika autonomoa: Hezitzaileak esparru honetan dituen mugak aztertzea. | 6-7 | 0,5 h.<br><br>0,5 h. | X | <br><br>X | Irakasleak familiarekin eta beste profesional batzuekin elkarlanean jarduteko irizpideei buruzko azalpenak emango ditu, Power Point-eko aurkezpen bat baliatuz.<br>Ikasleek, ondoren, hezitzaileek esparru honetan dituzten mugak aztertuko dituzte. | Esku hartzen duten agenteen arteko elkarlanerako irizpideak definitu eta finkatu nahi dira eta ikasleek hezitzaileek esparru honetan dituzten mugak ulertzea bilatzen da. | Power Point-eko aurkezpena.<br>Kanoia.<br>Ordenagailu eramangarria.<br><br>Ikasgelako berezko baliabideak. |
| J7 Pediatriako larrialdi-zentro batera bisita egitea.<br><br>J7.1-E5 Ikasleen praktika autonomoa: Datu guztiak fitxa batean jasotzea.<br><br>J7.2-E6 Lan-taldeak: familiari informazioa emateko triptikoak, liburuxkak, zirkularrak, eta abar egitea. | 3 | 2 h.<br><br><br>2 h. | | X<br><br>X<br><br>X | Ikasleek larrialdi-zentro bat bisitatuko dute, haur bati sukarra jaisteko modurik egokiena zein den galdetzeko. Ondoren, datuak fitxa batean jaso eta irakasleari emango diote.<br>Amaitzeko, familiei informazioa emateko triptikoak eta liburuxkak landuko dituzte. | Haur batek sukarra duenean jarraitu beharreko esku hartzeko protokoloari buruzko zuzeneko informazio zehatza lortuko dute ikasleek.<br>Ikasleak Haur Hezkuntzako teknikariak osasun- eta segurtasun-agente gisa duen eginkizuna baloratzeko gai izatea lortu nahi da.<br>Familiari zein hezitzaileari autonomia, osasuna eta oinarrizko beharren asetasunari buruzko alderdi garrantzitsuenen informazioa eta orientazioa emango dieten baliabideak lantzen ikasiko dute ikasleek. | Orriak.<br>Kartoi meheak.<br>Irudiak.<br>Errotulagailuak.<br>Kola.<br>Guraizeak. |
| J8-E7 Haurren gaixotasunen aurrean esku hartzeko protokoloen suposizio praktikoak ebaztea. | 3 | 1,5 h. | | X | Irakasleak hezitzaileak esku-hartzea eskatzen duten haurren gaixotasun desberdinen suposizioak azalduko ditu eta ikasleek horiek ebatzi beharko dituzte. | Haurren gaixotasunen sintoma nagusiak bereizten erakutsiko zaie ikasleei.<br>Haurren gaixotasunen aurrean esku hartzeko protokoloei buruzko kontzeptuen jarrerazko eta prozedurazko aplikazioa egingo dute. | Irakasleak aldez aurretik prestatutako suposizio praktikoak. |
| J9 Lan-taldeak: txertoen egutegiarekin | 3-5 | 0,5 h. | | X | Ikasleak taldeka antolatuko dira eta | Familiari zein hezitzaileari autonomia, | Ordenagailu-gela. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| taula bat osatzea.<br><br>J9.1 Ikasleen praktika autonomoa: Emaitzak alderatzea eta fitxa batean jasotzea. | | 0,5 h. | | X | Internetera joko dute Euskal Autonomia Erkidegoko, Espainiako eta EBko beste herrialde batzuetako txertaketa-sistemei buruzko informazio bila. Lortutako informazioarekin taula bat osatuko dute, herrialde bakoitzaren txertaketa-egutegiak zehaztuz.<br>Emaitzak alderatu eta aztertu egingo dituzte ondoren, eta fitxa batean jaso. | osasuna eta oinarrizko beharren asetasunari buruzko alderdi garrantzitsuenen informazioa eta orientazioa emango dieten baliabideak lantzen ikasiko dute ikasleek.<br>Informazioak alderatzen eta ondorioak ateratzen ikasiko dute. | Internet.<br>Pendrive-ak/disketeak.<br>Inprimagailua.<br><br>Irakasleak prestatutako konparazio-fitxa. |
| J10 Lan-taldeak: txertoei buruzko triptikoak egitea. | 3-5-6 | 1 h. | | X | Ikasleek familiarentzako triptikoak landuko dituzte, txertoei buruzko zalantzak argitzeko eta txertoen garrantzia azpimarratzeko; iturri desberdinak erabiliko dituzte informazioa lortzeko. | Familiari zein hezitzaileari autonomia, osasuna eta oinarrizko beharren asetasunari buruzko alderdi garrantzitsuenen informazioa eta orientazioa emango dieten baliabideak lantzen ikasiko dute ikasleek. | Testu-liburuak.<br>Internet.<br>Ordenagailu-gela.<br>Pendrive-ak/disketeak.<br>Inprimagailua. |
| J11 Lan-taldeak: osasun-laguntzako eta larrialdietako telefonoei buruzko informazioa duten horma-irudiak egitea. | 3 | 1 h. | | X | Ikasleak taldeka jarriko dira eta horma-irudiak egingo dituzte inguruan dituzten laguntza-baliabideen telefono-zenbakiak adieraziz: osasun-zentroak, Toxikologia Institutu Nazionala, anbulatorioak, ospitaleak, babes zibila, udaletxeak, anbulantziak, eta abar; informazioa lortzeko iturri desberdinak erabiliko dituzte. | Osasun-laguntzari buruzko informazioa ematen duen baliabide bat eskura edukiko dute ikasleek. Era berean, familiari zein hezitzaileari autonomia, osasuna eta oinarrizko beharren asetasunari buruzko alderdi garrantzitsuenen informazioa eta orientazioa emango dieten baliabideak lantzen ikasiko dute. | Testu-liburuak.<br>Ordenagailu-gela.<br>Internet.<br>Pendrive-ak/disketeak.<br>Kartoi meheak.<br>Irudiak.<br>Errotulagailuak.<br>Kola.<br>Guraizeak. |
| J12 Lan-taldeak: osasunaren prebentziorako eta sustapenerako kanpainak aztertzea. | 5 | 1 h. | | X | Ikasleek osasun-kanpaina desberdinei buruzko informazioa eta materialak bildu beharko dituzte. Kanpainak xedetzat duen biztanleria, kanpainaren helburua, erakunde arduraduna, eta eraginkortasuna aztertuko dute ikasleek eta hobetzeko proposamenak egingo dituzte.<br>Ikasleak taldeka antolatuko dira, eta gai | Osasunaren prebentzioaren eta sustapenaren arteko desberdintasunak ezagutzera emango dira.<br>Hainbat osasun-kanpainaren jatorria, xede-biztanleria, helburuak eta arrazoiak bereizten ikasiko dute ikasleek.<br>Ikasleek azterketa egiteko eta hausnarketarako duten gaitasuna garatzeko balioko du. | Testu-liburuak.<br>Ordenagailu-gela.<br>Internet.<br>Pendrive-ak/disketeak. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| J12.1 Lan-taldeak: osasun-kanpaina bat diseinatzea.<br><br>J12.2-E8 Taldeko azalpena J12.1 jarduerari buruz. | | 1 h.<br><br>2 h. | | X<br><br>X | bat aukeratu ondoren, osasun-kanpaina bat prestatuko dute: helburua, eslogana, arrazoiak, materialak (horma-irudiak, triptikoak, liburuxkak, bideoak, iragarkiak, eta abar).<br>Amaitzeko, egin duten lana gainerako ikasleen aurrean erakutsiko dute taldeek. | Osasunaren prebentzioari eta sustapenari buruzko informazioa ematen duten baliabideak lantzen ikasiko dute ikasleek.<br><br>Ikasleak Haur Hezkuntzako teknikariak osasun-agente gisa duen eginkizuna baloratzeko gai izatea lortu nahi da. | Kartoi meheak.<br>Irudiak.<br>Errotulagailuak.<br>Kola.<br>Guraizeak.<br><br>Grabagailuak eta audio-bideoko erreproduzitzaileak.<br>PCa eta kanoia. |
| J13-E9 Ikasleen praktika autonomoa: haurren istripuei buruzko txosten bat lantzea. | 1-2-5-6-7 | 0,5 h. | | X | Haur-eskoletan, etxean, naturan, osasun-zentroetan, eta abar gertatzen diren istripu ohikoenen txosten bat landuko dute ikasleek, eta horiek prebenitzeko moduak barne hartuko dituzte. Iturri desberdinetara joko dute informazio bila. | Haurren istripuak ekiditeko hartu behar diren osasun-neurriak eta prebentziozkoak deskribatuko dira. | Testu-liburuak.<br>Ordenagailu-gela.<br>Internet.<br>Pendrive-ak/disketeak.<br>Inprimagailua. |
| J14 Lan-taldeak: haurren istripuei buruzko horma-irudiak egitea. | 1-2-5-6-7 | 1 h. | | X | 4 taldetan antolatuko dira ikasleak eta prentsa, irrati, telebista edo Interneten haurren istripuei buruz ematen diren albisteak horma-irudi batean erakutsiko dituzte, bai eta istripu horiek saihesteko moduak ere. Talde bakoitzak komunikabide bat aukeratu eta landuko du. | Familiari autonomia, osasuna eta oinarrizko beharren asetasunari buruzko alderdi garrantzitsuenen informazioa eta orientazioa emango dieten baliabideak lantzen ikasiko dute ikasleek.<br>Ikasleek prebentzioak duen garrantziaz hausnarketa egitea eta garrantzi horretaz jabetzea lortu nahi da. | Kartoi meheak.<br>Irudiak.<br>Testuak.<br>Errotulagailuak.<br>Kola.<br>Guraizeak. |
| J15-E10 Ikasleen praktika autonomoa: arriskuak eta kontrol-puntu kritikoak aztertzea. | 1-2-5-6-7 | 0,5 h. | | X | Ikasleek haur-eskola bateko eta etxeko gelak aztertu eta ikusitako arriskuak eta horiek desagerrarazteko neurriak idatziko dituzte. | Ikasleek geletan izan daitezkeen arriskuak eta kontrol-puntu kritikoak behatzen, aztertzen eta bereizten ikasiko dute.<br>Hezitzaileak osasun-eragile gisa betetzen duen eginkizuna eta dagozkion eginkizunen artean prebentzioak duen garrantzia baloratuko dute ikasleek. | Ikasgelako berezko baliabideak. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| J15 Udalerriko parke batera bisita egitea.<br><br>J15.1-E11 Ikasleen praktika autonomoa: zabu, sarrera, eta abarren egoerari buruzko txosten bat lantzea. | 1-2-5-6-7 | 2 h.<br><br>0,5 h. | | X<br><br>X | Ikasleak eta irakaslea inguruko parke batera hurbilduko dira, haurrentzako erreserbatutako jolas-eremua eta zabuak aztertzeko: akats, arrisku edo irregulartasunik ote dagoen behatu beharko dute ikasleek.<br>Ondoren, txosten bat idatziko dute banaka eta parkean ikusitakoa zehaztu eta egoeraren balorazio pertsonala egingo dute. | Ikasleek hainbat ingurunetan izan daitezkeen arriskuak eta kontrol-puntu kritikoak behatzen, aztertzen eta bereizten ikasiko dute.<br><br>Arriskuei eta kontrol-puntu kritikoei buruzko txostenak lantzen ikasteko balio du. | Ikasgelako berezko baliabideak. |
| J16 Haurren istripuen aurrean esku hartzeko teknikei buruzko eredu bat osatuko du irakasleak.<br><br>J16.1 Irakaslearen praktika gidatua, I16 jardueraren inguruan.<br><br>J16.2-E12 Ikasleen praktika autonomoa, I16 jardueraren inguruan. | 1-2-5-6-7 | 1 h.<br><br>1 h.<br><br>1 h. | X | x<br><br>X<br><br>X | Irakasleak lehen laguntzen teknikak aplikatzeko jarraitu behar den prozeduraren erakustaldia egingo du lantegi-ikasgelan.<br>Ikasleek irakasleak egindako ekintzak errepikatuko dituzte ondoren, irakaslearen laguntzarekin.<br>Ikasleak modu autonomoan lan egingo du. | Haurren osasunerako eta segurtasunerako zailtasun edo arrisku bereziko egoeretan esku hartzen du, eta gaixotasunik edo istripurik izanez gero ezarrita dauden prebentziorako eta esku hartzeko protokoloekin lotzen du bere jarduna.<br>Ezarritako esku hartzeko protokoloak zuzen aplikatzen ikasten da. | Ikasgela-lantegia<br>Panpinak.<br>Botikina. |
| J17-E13 Lan-taldeak: arriskuez ohartarazteko ikus-seinaleak egitea, abestiak interpretatzea eta ipuinak kontatzea. | 1-2-5-6-7 | 1 h. | | X | Haurrei inguruan dituzten arriskuei buruz ohartarazteko (produktu toxikoen arriskuak adibidez) ikus-seinaleak egingo dira eta ipuinak kontatuko dira, semaforoa gorria dagoenean errepidea zeharkatzeak duen arriskuari buruz adibidez. | Autonomia, osasuna eta oinarrizko beharren asetasunari buruzko alderdi garrantzitsuenen informazioa eta orientazioa emango dieten baliabideak lantzen ikasiko dute ikasleek. | Kartoi meheak.<br>Irudiak.<br>Testuak.<br>Errotulagailuak.<br>Kola.<br>Guraizeak. |
| J18 Lan-taldeak: botikinari buruzko informazioa barne hartzen duen liburuxka bat egitea. | 5 | 0,5 h. | | X | Ikasleek familientzako informazioa barne hartzen duen liburuxka bat osatu beharko dute, eta botikin batek eduki beharreko elementuak eta botikina | Familiari autonomia, osasuna eta oinarrizko beharren asetasunari buruzko alderdi garrantzitsuenen informazioa eta orientazioa emango dieten baliabideak | Orriak.<br>Ordenagailuak.<br>Inprimagailua. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | erabiltzeko modua zehaztu beharko dituzte. | lantzen ikasiko dute ikasleek.<br>Sormena garatzeko balioko du. | |
| E14 Azken ebaluazioa. Idatzizko proba bat ebaztea. | | 1 h. | | X | Ikasleek landutako gaiaren inguruko kontzepturik garrantzitsuenen galdeketa bat erantzungo dute banaka. | Unitate didaktikoan bereganatutako ezagupenak erakusteko balioko du. | Azterketa. |

| OHARRAK |
|---|
| • Ikaskuntza-jarduera gehienak ikasgelan bertan egiteko modua bilatu da; hala ere, denboralizazioan aurreikusitakoa baino denbora gehiago beharko dute ikasleek zenbait jarduera amaitu ahal izateko.<br>• Ikaskuntza-jardueretan eta ebaluazioa egitean landu dituen materialak emango dizkio ikasleak irakasleari, berak zuzentzeko eta baloratzeko. Ikasleek lan egiten duten bitartean, irakasleak ikasleen jokaera behatuko du, datuak jasoko ditu eta ondorengo ebaluazioa egiteko erabiliko ditu. |

| 2. unitate didaktikoa: 0 ETA 6 URTE BITARTEKO HAURREN HAZKUNTZA ETA GARAPEN FISIKOAREN EREDUAK AZTERTZEA | Iraupena: 26 ordu |
|---|---|

*IE1: Esku-hartzearen prozesua eta emaitza ebaluatzen du oinarrizko beharrei erantzuteari eta autonomia pertsonaleko ohiturak hartzeari dagokionez, eta erabilitako estrategien eta tresnen hautaketa justifikatzen du.*
*IE6: Esku-hartzearen prozesua eta emaitza ebaluatzen du oinarrizko beharrei erantzuteari eta autonomia pertsonaleko ohiturak hartzeari dagokionez, eta erabilitako estrategien eta tresnen hautaketa justifikatzen du.*

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Informazio-iturriak eta hazkuntza eta garapen fisikoaren jarraipena egiteko teknikak identifikatzea.
2. Haurren eboluzioa eta esku hartzeko prozesua kontrolatu eta jarraitzeko adierazle eta teknika egokiak hautatzea.
3. Jasotako informazioa behar bezala interpretatzea.
4. Haurren hazkuntzaren eta garapenaren eboluzioari buruzko txostenak lantzea.
5. Haurren oinarrizko beharrei egokiro erantzuteko ebaluazioak duen garrantzia baloratzea..

| EDUKIAK | | Multzoak | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
| PROZEDURAZKOAK | • Parametro fisikoen eboluzioari buruzko datuak eta tresnak interpretatzea. | | | | | | X |
| | • Familiei eta beste profesional batzuei zuzenduta, hazkuntza eta garapen fisikoaren eboluzioari buruzko txostenak egitea | | | | | | X |
| KONTZEPTUZKOAK | • Hazkuntza eta garapen fisikoan eragina duten faktoreak. | X | | | | | |
| | • Hazkuntza eta garapen fisikoaren kontrola eta jarraipena egiteko tresnak. | | | | | | X |
| | • Hazkuntza eta garapen fisikoari buruzko informazio-iturriak eta haien jarraipena egiteko teknikak. | | | | | | X |
| | • Familientzako eta beste profesional batzuentzako informazioa. Tresnak. | | | | | | X |
| JARRERAZKOAK | • Ikasleen oinarrizko beharrei egokiro erantzuteko ebaluazioak duen garrantzia baloratzea. | | | | | | X |
| | • Zuhurtasuna datuak biltzean eta aztertzean. | | | | | | X |
| | • Ikasleekin esku hartzen duten profesionalen artean lankidetzan aritzeak eta informazioa trukatzeak duen garrantzia baloratzea. | | | | | | X |
| | • Familiekin komunikatzeak eta informazioa trukatzeak duen garrantzia baloratzea. | | | | | | X |
| | • Hazkuntzarekin eta garapenarekin lotutako asaldurak goiz antzemateko behaketak duen garrantzia baloratzea. | X | | | | | |

| JARDUERA | | | | | METODOLOGIA | | BALIABIDEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota | Helburu inplikat. | D. | NORK | | NOLA egingo den | ZERTARAKO egingo den | ZEREKIN egingo den |
| | | | Ir. | Ik. | | | |
| J0 Unitate didaktikoaren aurkezpena.<br>E0 Hasierako ebaluazioa. | | 1 h. | X | | Irakasleak galderak egingo dizkie ikasleei ahoz; ideia-zaparrada antolatuko du unitatearen aurkezpen laburra egin aurretik; eta inkesta bat egingo du unitatea amaitzean. | Ikasleak motibatzea eta ikasleengan interesa piztea bilatzen da, dituzten itxaropenak ezagutzeko eta aurretiazko ezagupenak antzemateko.<br>Ikasleek unitate didaktikoan ikasiko dutena ezagutzea eta eduki berriak gainerako unitate didaktikoetan ikasitakoekin nola erlazionatzen diren ezagutzea bilatzen da, horrela ikasleek moduluaren ikuspegi orokorra bereganatzeko eta ikaskuntza esanguratsuak egiteko. | Power Point-eko aurkezpena.<br>Kanoia.<br>Ordenagailu eramangarria.<br>Aldez aurretik egindako inkesta.<br>Arbela.<br>Klarionak. |
| J1 Hazkuntza eta garapen fisikoan eragina duten faktoreei buruzko azalpena. | 1 | 2 h. | X | | Irakasleak talde osoari klase magistrala emango dio, hazkuntza eta garapen fisikoan eragina duten faktoreei buruz. | Ikasleen artean hazkuntza eta garapen fisikoan eragina duten faktoreei buruzko informazioa ezagutzera emango da. | Power Point-eko aurkezpena.<br>Kanoia.<br>Ordenagailu eramangarria. |
| J2 h.azkuntzari buruzko eztabaida.<br><br><br><br><br>J2.1-E1- Lan-taldeak: J2 aztertzea. | 4 | 1,5 h.<br><br><br><br><br>0,5 h. | | X<br><br><br><br><br>X | Ikasleak talde txikitan antolatuko dira eta hazkuntzak dituen alderdi esanguratsuenei buruz hitz egiteko proposatuko zaie.<br>Arrazoiak aztertu eta ondorioak fitxa batean jasoko dituzte ondoren; egindako lana irakasleari emango diote, berak zuzentzeko eta baloratzeko. | Komunikazioa eta entzute aktiboa garatzen da, eta arrazoitzen eta ikuspegi desberdinak onartzen ikasten dute ikasleek.<br>Dagokion lanbide-rola ondo betetzen komunikazioak duen garrantzia baloratzen ikasten dute.<br>Informazioa laburbiltzen eta aztertzen dute eta ondorioak ateratzen ikasten da. | Ikasgela bera.<br><br><br><br>Fitxa. |
| J3 Informazio-iturriei eta hazkuntza eta garapen fisikoaren jarraipena egiteko teknikei buruzko azalpena. | 1 | 2 h. | X | | Irakasleak klase magistrala emango du, informazio-iturriei eta hazkuntza eta garapen fisikoaren jarraipena egiteko teknikei buruz. | Ikasleek informazio-iturriei eta hazkuntza eta garapen fisikoaren jarraipena egiteko teknikei buruzko edukiak ezagutuko dituzte. | Power Point-eko aurkezpena.<br>Kanoia.<br>Ordenagailu eramangarria. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| J4. Lan-taldeak: hazkuntza-taula bat lortzea. | 1 | 2 h. | | X | Ikasleak taldeka antolatuko dira eta gutxienez hamar haurren hazkuntza-taulak lortu beharko dituzte. | Informazioa iturri desberdinetan bilatzen eta informazio egokia aukeratzen eta alderatzen ikasiko dute ikasleek. Halaber, gai jakin baten inguruko alderdirik azpimarragarrienak antolatzen ikasiko dute. | Hazkuntza-taulak. |
| J4.1-E2 Lan-taldeak J4 aztertzeko. | | 2 h. | | X | Ondoren, datuak aztertu eta ondorioak atera beharko dituzte. Burututako lana irakasleari emango diote, berak zuzentzeko eta baloratzeko. | | |
| J5 Hazkuntza eta garapen fisikoaren kontrola eta jarraipena egiteko tresnei buruzko azalpena. | 1 | 2 h. | X | | Irakasleak klase magistrala emango du, hazkuntza eta garapen fisikoaren kontrola eta jarraipena egiteko tresnei buruz. | Ikasleen artean hazkuntza eta garapen fisikoaren kontrola eta jarraipena egiteko tresnei buruzko informazioa ezagutzera emango da. | Power Point-eko aurkezpena.<br>Kanoia.<br>Ordenagailu eramangarria. |
